

Bi liburu horien osagai moduan urte batzu goizago, 1615. De Lancre sorgin epaileak sailkatu sendakuntza ta sendagingoak, frantsesetik sei orrialdeetan itzuli ditugu eta iruzkindu.

Pastoraletan eguneroko bizitza aipatzen ez delarik - eta beste testurik agertzen ez den bitartean - horiek ditugu zubererazko lekukotasunak: hirur esaera zahar bilduma, astolasterretatik ateratutako 117 bertso, edo ahapaldi, Bidaveren errezeta bilduma, bere 80. orrialdeekin, Barkoixeko abelsendakuntzazkoa, bere 34.ekin, bi eliza libururen zati, botanika bat 40 orrialdeetako, Denetara XVII. mendeko, bost testu, XVIII. mendeko hirur, XIX. mendeko bat, eta XVI - XVII. mendeko atsotizetatik hirur testu.

OSASUN TA ERITASUNAZ ATSOTITZAK XVI. XVII. MENDEETAN

Osasunari buruzko "Erran Zaharrak" Zuberoan

I. BILDUMA ZAHARRENA, BELTRAN ZALGIZENA XVI. MENDEAN.

Arlande Oihenarte-k, XVI. mende azkenean, Zalgizek bildu erran zaharrak, bere bilduman sartu zituen

A. Janariaz

1. Aza eta zopa.

3. Azak eta zopak suhandi nahi ditu.

4. Azen petik zopak jan ditu.

5. Azak bano lehen zopak jan ditu.

8. Duianak azer bipher.

Atsotitz horiek erakusten digute azak **onarpen eskaxa** duela, nahiz janari ugaria izan; Bostgarren atsotitzean zopak (ogia) aza baino lehen jan ditu, laugarrenean berdin azen azpian ogia bilatu du. Azkenik zortzigarren atsotitza darakusgu **piperra** ez zela etxe guztietan ta azaren hobetzeko ego-kia zela.

2. Artoa

205. Arto eta porru, bazkari gori.

Geroago ikusiko dugunez porrua estimu gutxitan dago baina artoak **jasotzen** du. Artoa dio Belako zaldunak bere 1780. urteko hiztegian, "*Turkiako gari ogia*" dela, ez alea.

3. Ogia

2. Batari harriaz, berzeari ogiaz

18. Ezta sori (haizu), horak (zakurrak) ogi

Bi atsotitzek erakusten digute, ogia ez zela oraindik zabortegira botatzen den janaria, zakurrek ere ez baitute jateko eskubiderik, edo atzaparbiderik (18. atsotitza). Gero aurretik, zopa aipatzean ikusi dugu orduko jaleak nola lehenik ogia jaten zuen. Esaera hau XVII. mendekoa da, baina de Froidour, Euskal Herriko basoak ikusten ibili zena, garai hartan dio, jendeak **arto-xehea** jaten zuela, ez ogia; beharbada eta oraingo artoa **Zea mays** L. ez baita mende hartan baizik Zuberoan sartu, esaera zaharrean **arto** hitzak ez du esan nahi berdina beharbada. Hamazazpigarren mendean, goian aipatu frantsesaren arabera garia (ogi-bihia) zergen ordaintzeko egiten zuten Zuberoan.

Halaz ere L. De Froidour-ek arto agertu berriaren albisteak ematen dizkigu

"Garia ta artoa (arto larria) Zuberoako bi uztak dirade. Arto xehea gutxitu egin da, geuk Frantzian esaten dugun Turkiako garia, delakoari nekazariak ohitu ezkeru. (1673.an) (ik. De Coincy-ren liburua, separata gisa emana **Louis de Froidour en Pays Basque**, Baiona, 1929)

4. Porrua.

45. Jan porru, gero dolu.

79. Emak sorhaioari (ezaxolari) porru, eska dagidik gatz.

204. Porru eta gatz barazkari latz

Hemen ere ta aza bezala, belar sendagintzan hain onetsia denak ospe txarra dauka eta halere besterik ez denean jan behar, bai 204. atsotitzean gatzarekin ere bazkaria gelditzen da latz.

5. Tipula.

30. Tipula jan, tipula lan.

Erran zahar berdina entzuten zen, lursagarra gatik otzagabiarren ahoan, eta naski berriagoa "Patata xan, patata lan"; agian idi-lan egiteko idiki edo behiki jan beharko zen, jendeek behintzat baratzeko gauzak baino gehiago gogoan zituzten haragikiak, eskulan gaitzik egiten baituzten.

Baratxuria-ren aipamenik ez dago, ez **erremuarena** atsotitz horietan, handikan berrehun urte, Belako zaldunaren hiztegian (1780) artoarekin batean horiek dira agertuko diren janari sendagailuak.

6. Haragia.

98. Xerri gorri haurren, haragia jaunen.

Aurreko galderari, hemen erantzuna, baina haragia jende helduentzat gordetzen zela erakutsiz; garai ederra ote zeren XIX. mendean, eta XX. mende hasieran haur askok ez zuten astean behin haragirik, ez txerrikirik jaten, ez eta heldu askok.

7. Gatza.

Ez dirudi euskaldunek - ez eta gure menditarrek ere - gatz gabezia ezagutu dutenik, gatzari esker guti baitiote, porruarekin batean, bazkari latza dela ikusi dugu ta egarria kentzeko ez eta emateko ez den edozertaz janari esaera erabiltzen da.

:145. Ez ur, ez gatz.

B. Edariaz.

26. Noren hon, noren gaitz nafar ardoa

180. Edale ona, kapela pian.

26. Atsotitzak aitortzen du batzuei on eta bestei gaitz dagiala ardoak, baina jendea aipatzen badu, ez du ardoaren neurria ematen; ala esan nahi du saltzalearen on ta eroslearen txar dela; ez dugu hala uste nafar ardoak oso ospe handia baitauka Zuberoan.

180. Atsotitzak, lehen zatian dio edale on, arauetz edale txarrak ere baitirade, gero, beharbada biltzaila aitonen seme baitzen, kapeladunek bazekitela bilaunek baino hobeki edaten irudiarazten du.

K. Gosea ta sabelkoiak: ahoaren neurriak.

Asegaitza: Ahozuriez ikusi duzu aza baino hobe zaiela zopa, eta gatza baino hobe artoa, baina gose-jankin, gose-tiei buruzko esaerak badira:

- 54. **Ahora gabe iztarrira**
- 156. **Haginak ezurrak ditu**
- 172. **Aho bano haboro begi duk.**

Jale ona:

- 73. **Dugunian bon bon (ondo), eztugunian egon**
- 136. **Ahoa dabilano sabela botz.**

Nekez jateaz:

- 6. **Hortzik eztianak, iztarri**
- 7. **Hortzik eztuanari, baba erre**
- 17. **Ahamen gaitzak begi gorri.**

Naski garai haietan hagin ordezkorik, gutxik zeukaten eta galtzearekin konpondu behar.

GOSEA

Gosearen iturri bat hau liteke

- 29. **Ez jan, ez lan,**

baina gosea ez da berez berealaxe hiltzen:

- 113. **Gosea bere jaki.**

gosearen ez haunditzeko ahaztu

- 135. **Dabilanak sabela handi, dagoenak hoina handi**

Halere lan bilatzeko ibili behar da, zeren goseak dakar jendea izatera:

- 39. **Bortxaz, barurzale.**

Gero, argi dago garai zaharretan goseak, gaizkiegitera bazeroala errez:

- 40. **Gizon barura, erdi deiabru.**

Goseak holako garrantzia zuen, eta beharbada izango du gure herrian non eta, beharruneaz, beharraz hola zioten lehen:

- 199. **Behar, behar, dupiña eta pegar.**

Naski ez du horrek esan nahi ontziak izatea nahikoa zela, baina jatekoa izan ezkerro beste beharrik ote zen; ehotzeko, hausteko tresna aurkitzen zen:

- 48. **Intzaur duianak jateko, baduke harri hausteko.**
- 94. **Eihera (errota) batian ezin eho dezanak, bertze(rat) laster bardin harri.**

Ahamen gaitza ez dela errez iresten ikusi dugu, baina gure zaharrek zioten:

- 24. **“Ezta” bano hobe da, “ezta hon”.**

II. JAKES BELAKOAREN ERRAN ZAHARRAK (1650. URTE INGURUAN)

Zalgize-k 195. erran zahar eman badizkigu, zeinetarik 52 berrogeitahamabi, osasunaz, Jakes Belakoak, bere **Tablettes** argitara gabeetan ta P letraren zerrendan, Proverbes ipini du ta ondotik *“Les proverbes sont les cousins germains de la vérité”*. Atsotizak egiaren lehengusuak dirade, bilduma hau, bestea baino motzagoa da, nonbait bukatu gabekoa, “p” aurre hizkira heltzen baita, bakarrik. Halere oso bestela-

ko eta gure gaian aberatsa dago, nahiz jan edanak bazter utzita eritasuna ta heriotza aipatzen baititu:

A. Asea ta gosea.

Esaten da goseak ez duela entzuten, baina badirudi aseak ez duela ikusten:

- 2. **Ase-k, gose eztakusa** (ik. Oihenart)
- 26. **Gosia bere jaki** (ik. Zalgize ta Oihenarte)

B. Eritasuna

Bapatean gaixotzen dena, berdin sendatzen omen da:

- 14. **Kriketz eri, kriketz sendo.**

Baina zahartasunari ezin itzur eta zahartzearekin batzutan, xoratzen da.; bai Zahartu nintzen, zoratu egiteko:

- 10. **Zahar nendin, zora nendin.**

Ezin bizia ere gaitza ta eritasuna izan liteke eta orduan, hiltzea deitzen da:

- 6. **Bizitze gaitzak hil nahia**

Gaitzaren, eritasunaren iturria, bakoitzaren bizimolde okerrean legoke, erran zahararen arauera:

- 36. **Min düienak bulharra jo.**

K. Herioa

Ikusi dugu nola ezin biziak bere buruaren hiltzeko guraria dakarran, heriotza baino ondorioak aipatzenago dira

- 29. **Hil ustegabiaren gañeko ezkoa karioenik.**
- 28. **Hil'adi laid'adi.**

Beraz osasunaz zortzi “erran” daude, gehienak, Zalgize-ren bilduman agertzen ez direnak, zübereraz direnak. Eguneroko bizitza xumearen aipamen diren erran zaharrak ez dira halaxen bilduak hemen. Jakes Bela hau, Beltran Zalgize-ren gisa protestantea da, baina ez dugu uste, osasunari, herioari, bizitzari buruzko ezezkortasun eta beltzkeria hori beren sinesteari zor zaiela; oraindik beren garaian, izurrite haundiak zeuden, haur asko txikitán hiltzen, amak ere denbora berean. Dakigunez, garai onak eta gosete garaiak zeuden, oraindik, goseari buruzko erran zaharren ugaritasunak darakusan moduan.

Azkenik aipa dezagun edariaren metafora bat giza bakoitzaren geroa nolako den adierazteko:

- 23. **Ezterragüla, zoin huretarik edanen dügün.**

III. OIHENARTE-REN BILDUMA, (1657.REN URTEKOA)

Oihenarte noski, Zalgize-ren bildumaz baliatu zen eta esaten digu, beharbada ere Bela-renaz; hemen emango ditugun atsotitzak bakarrik Zuberoakoak dira, eta Arlande Oihenartek hala emanak. Erranzahar zaletasun hori ez zen Euskal Herrian oraindik hamazazpigarren mende erditsutan itzali, handik ehun bat urte, Oihenarte irakurrita, Jusef Egiategi, izango da atsotitz biltzaile-itultzaille haundia, argitaratu gabea dagoen *Mosde Etxeberriren gogamenak*, hartaz betea dago, frantsesez eta euskaraz emanak. Uste dugularik Oihenarterekin argitalpen jatorragoa dugula, mende zaharrak hunekin bukatuko ditugu, eta jauzi bat XX. menderaino egingo.

Oihenartek Zuberoako 73 erran zahar bildu zituen, Urhentza-delako eranskinean dira eskualde hontakoak azalzen: eta nahiz osasun gaietaz, beste eskualdetakoak baino mugatuagoa izan hona zenbait:

A. Ogia

Zalgize-k erakutsi bezala, ogia, aza baino gehiago da, iñola ere:

838. Aberatsago bada, jan beza berritan zopa.

B. Haragia.

Lanaren, diruaren ta jatekoaren artean lotura dago gaina:

888. Atsoa(k) zertzaz eros duenean ezt'aragirik arakintzean.

K. Asea ta gosea

Denak ez ziren gosez hiltzen, baina soberak ere badu nonbait laister muga:

860. Oheti mahaira /, mahaitik ohera /, korrongaz / pharadusura.

Gosea, janbideen gaizki erabiltzeaz eta gorde agintzeaz heldu liteke:

868. Ezne, guri eta gazna, neure behitik athera netzan eta neure xahala gal nezan.

D. Minak eta minaren beldur-izuak.

Minak gauza hobereenen gozatzea galeraz lezake

885. Ahoan duenari min Eztia zauko samin

Minaren beldurra, gaitza non nahi ikustera darama behin hartua izan dena, ala hartzeko beldur dena:

884. Sugeaz ausiki, beldur, zauka suskerrari ere

Erran zahar hontan komarik ez dagoen ezkeru bi gisatar irakur diteke.

Minak eta zauriak, den baino gehiagoko itxura itsusia erakuts lezakegu:

886. Sudurra ebaki, muthurra odolzu.

Halere gaitzaren axola eduki behar da, behar barik ez gaitzotzeko, eguzkitakoa erabili dezala zaharrak udan:

885. Sentona: agorriletan (abuztuan) bidez bahoia uk eskuetan ekitakoa

E. Herioa

Ez da deitzen: hobe da agian alkandorra galtzea ez larrua:

53. Athorrak hunkiten bana aragiak etxekiten.

Goseak huki dezazke haurrak orobat:

66. Hitzez berzerik behar da, haurrak haziren badira.

D. Lana ta nekea.

105. Akituz geroz, lanik hobena

Esaera horrek bi adierazi izan lezake, "nekatuta gero lanik onena" baina segurrago "nekatu ezkeru, lanik onena" zeren ezin da ulertu lan onik egin dezakegunik nekatuta beste atsoitz batek ere hala dio:

187. Nekez eta phekez (gaizki)

Loa eta atsedena ez dira bereiziki aipatzen, nahiz eta goiko erran zahar horiek, atsedenen beharra eskatzen duten, zeharka.

E. Ama ta haurrak

Haur erditzea ez zen lehen hain erreza, zenbat ez zen **hiltzen?** Gero, emaztea ama bezala zen **goretsia** hortarako erran zaharrek zioten:

38. Urteko erdia, urteko eria.

37. Ama erdi oro, zoro.

Haurrak nolako jiten ziren basaihiiziekien erkatuz erakusten zen

144. Pika nolako humia halako

eta ezkerreko-haurrak (bortak) aipatzeko, ikusi-mikusi hau:

101. Mandoak nor du aita? Bortuko (goi mendiko) behor ederrena ama.

Zer esanik ere, haur izatea hobe:

164. Elhetto, elhetto, bana guk haurtto.

F. Eritasuna ta sendabideak.

Hemen errefrau guti, eta azter genezake, laburzki bide-
txoak erakutsiz, bazterte horienak:

1. Ezintasunaren gatik
2. Bildurra gatik.
3. Biltzailea ez baita arduratu.
4. Gaitz eta eritasun bereziak ez baitira erran zahar iturri.
5. Azti esaerak direlako, biltzaileak baztertuak.
6. Beste arrazoirik.

Nola nahi ere hona uzta xuhur ta motz hori. Lehenak itxura du esaera dela beste gauza bategatik esaten zena, ikusi-mikusi edo papaita bat

95. Ohe batetan bi eri (ik. bi eskale, borta bati)

Beste ondoko hau har litake, gorputzaren eta gogoaren minentzat, nekentzat: zeren bizian batak min egiten badu, besteak mina txikitzen du; hizkuntzaldetik min / sor kontraktasuna agertzen da.

143. Bata mingarri, berzia sorgarri.

Bizi gaitzaz mintzo delarik Zalgize zaharra, ez dakigu zuzen gaitz = eritasun ala gaitz = zail esan nahi duenez; baina eritasuna **biziari** loturik dagoela dio, ez **bizitzari**:

186. Bizi gaitzak, hil dano (hil arteraino)

Gaitz bat ordea aipatzen da:

190. Gizon erhoa, keiñuzain.

Baita eritasunaz kanpoko esan nahian

49. Itsuen artean okerra errege

57. Eztakusan begik, ez nigarrik.

G. Heriotza.

G.1. Ez dirudi euskaldun zaharren kezka edo arregura haundiena zitekenik, ez zen trajeria:

42. Hila obira, bizia zarera (jatera)

G.2. Hil ondoren bai, gizonaren balioa gorapatzen da, beharbada haren beldurrez, errespetuz bezain beste, baina gehienetan beranduegi da; zaldi hilari

atzetik ematen baitzaio olo (hala dio ere kastellanoak):

201. Zamari hilari, gibeleti olo

G.3. Besterik ere gertatzen da, eta zen, gizonekoak irabazten joaiten zirelarik eta beren etxea egin orduko hartan nahi zuketen anderea, bitartean, hiltzen baitzen:

157. Kaiola egin denian, txoria hil

G.4. Halere gizonak ez du amor ematen bizitzeari eta eutsi egiten zaio, lotu egiten zaio zeren:

61. Athorra hurran dena, larrüa hurranago.

G.5. Norbaiten hiltzeak hutsunea uzten du, ez bakarrik jende bat gutiago delako, baina ezineriak eman dolua baitago, lurperatua gogoan:

134. Lurra xuri, gogoa beltz, hil ehortzia

Gelditzen zaigu esaera bat itzul gaitz

200. Albiriste, estakianan hobe.

zeren albiristea ez den berria, albistea, baina hilberria gaur, beraz berri txarra, nik beste leku batean itzuli nuen alderantziz ote? Garaiko zuberotar hiztegitxotan

(ik. Leizarraga) ez da hitz hori agertzen. Gaurko zubereraz **obriste**, eztei edo ehorzketa abisua da.

ELIZA-GIZON TA LEGE-GIZONEN LEKUKOTASUNAK XVII MENDEAN

Iuan de Tartas
Arlande Maitia
De Lancre
Jakes Belakoa.



XVII. mendean

Eliza gizon ta lege gizonen lekukotasunak

Iuan de Tartas
Arlande Maitia
Pierre De Lancre
Jakes Belakoa

XVII. Mendeko Zuberotar jakilegoa batzu (osasuna ta sendakuntza)

1. IUAN DE TARTAS .."ARIMA PENITENTAREN"..

Orthezen 1672. urtean argitaratua. (63. orrialdean hasten 72.eraino)

"2. Baruraz"

"Hargatik Garazuma ordenatu da primaberaren hatsarrean, zointan **gure odola berotzen baita eta samurtzen**, emaiten gure arimari mila pena (.) (63. orr.)

" Bada hanitz kausa gizona **barur egitetik eskusatz**en eta dispentzatzten dutenik Doktoren opinione komuna da, laur partean kausa hurak oro sartzen ahal direla (.) (67. orr.)

Hirurgarren kausa da **Infirmetas aetatis** adinaren infirmitatea: jende gazteak hogeitabat urte ardiets artino ez dira tenitü barur egitera zeren adin hartara heldü beno lehen denboran jan eta edan behar baitute bizitzeko, /./ **eta handitzeko**; orobat ere gauza ona eta onesta da jende gaztea, ordü honez, kostüma dadin zonbait baruren egitera, amorekatik adinak dütüanean ez dezan gero ediren sobera pena.. (.) (68. orr.)

Jende **zaharra** ere dispentsatu dira, 60 urte ardietsi geroz (.) (68. orr.)

"Halakoak, ohoinkeriaz egiten du bere ohoeskea: zoinnek güti janez, güti edatez eta güti lo eginez ber gorpitza sobera aflijitzen eta tormentatzen baitü; pertsona **erriak eta flakoak** ezin egiten düalarik eta obligatü ez delarik baruraren egiteaz, hainbertze bekatü egiten du nola persona **osoak eta azkarrak**, egiten ahal düalarik, ez egiteaz (.) (71-72. orr.)

"Laugarrena da **Infirmetas conditionis**, noiz ere emazte bat **izorra** baita edo **ünhüde** esküsa lejitimo dü barurik ez egiteko, baina ez dü esküsarik bianden kalitatean, erran nahi baita barurik ez eginik ere, bijiliak behar dütüala begiratü (.) (72. orr.)

"Senarra eta emaztea ere esküsatzen dira baruretik ezkontzearen kargüak ezin egarten badira eta batak bertzeari ezin errendatzen baditü **bere eginbideak** (.) (104. orr.)

Hemen, barurak aipatzean osasunaren aldetik Elizak nola sailkatzen dituen eta Tartas-ek nola zuzenenesten dispentsak, garaiko osasunaren kategoriak ematen dizkigu euskaraz:

- gazteak: hogeitabat urtez petik
- zaharrak: hirurogei urteez goiti
- erriak eta flakoak: gaixoak eta ahulak
- emazte izorra ta iñudeak
- ezkonduak, beren eginbideen betetzeko.

Beste gauza jakingarria da zergatik, Udaberrian behar den barur egin ez erlijio arrazoien gatik, baina "odola berotzen baita eta samurtzen".

Oraingo etxekandere batü, 68. urteetakoa galdetu nio-
nean ba ote zekian noiz egiten ziren zainebakitzeak, san-
gratzeak? Harek bereala Udaberrian esan zidan odola garai
hartan berotzen baita. Odol berotze hori izango sistema sin-
patikoen eraginaz tentsioa, orduan aldatzen baita. Beraz